



Lore eta landare azoka koloretsua.- Lore, landare eta zuhaixkak izan ziren nagusi Udalak Behemendirekin batera antolatutako hirugarren lore eta landare azokan larunbatean Okendon. Euria egin arren, batez ere, eguerdian asko izan ziren plazara gerturatu ziren herritarrak. Aurtengo Lore eta Landare azokan, hamahiru postu jarri ziren eta hauetan landare aromatikoak, zuhaixkak, kaktusak, bonsaiak, barnerako eta kanporako landare eskaintzaz gain, hazi ekologikoak, lore eta landareak erabiliz egiten diren xaboi naturalak, lore prentsatuak egindako koadroak edo loreekin egindako ile-apaingarriak ere egon ziren. Txikiek plaza erdian jarritako jokoekin aritzeko aukera izan zuten eta horretaz gain, landare tailerren euren letxuga landatu ahal izan zuten. Azalpenak adi-adi jarraituz, bakoitzak bere loreontzia apaindu zuen pegatina koloretsuekin, lurrarekin bete eta letxuga landare txikia jarri. Udaberriko loreen kolore biziek Okendo dotoretu zuten larunbat goiz hodeitsuan.



2 GIZARTEA 'Bakerantza' dokumentalaren emanaldia

Elkarbizi plataformak antolatutako 'Elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen' jardunaldi-tako azken saioa Lasarte-Orian egingo dela aurkeztu zuten. 'Bakerantza' dokumentalaren emanaldia hain zuzen, bihar 18:30ean ikusi ahal izango da Manuel Lekuona kultur etxean.



6 KIROLA 2015-2018rako kirol eta jarduera fisikoaren plana

Udalak Kirolaren eta jarduera fisikoaren plana aurkeztu du. Honen bidez, esparru honetan 2015-2018 urteen bitartean egin beharreko lanketa finkatu du Kirol sailak. Besteak beste, herriko kirol eragileekin landutako plana da eta esparru honetan dauden beharrei erantzuna eman nahi die.

MAiTE

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

JARDUNALDIAK

Elkarbizitza lantzen

'Bakerantza' dokumentala eskainiko da bihar

Ostiralean Elkarbizi plataformak 'Elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen' jardunaldietako azken ekintza aurkeztu zuen Lasarte-Oriako Ganbo Iturri elkartearen, 'Bakerantza' dokumentalaren emanaldia. Jexux Artetxe, Joxan Rekondo eta Arantxa Izeta ekimeneko kideak izan ziren agerraldian.



Elkarbizi plataformako kideak jardunaldien azken ekintzaren aurkezpenean.

TXINTXARRI

Elkarbizi plataformak antolatutako 'Elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen' jardunaldi zikloa amaitzeko da.

"Bailarako lau herrietan antolatu ditugu. Aurreneko hitzaldia Hernanin egin zen. Martxoaren 12an, Andoainen komunikabideen erantzukizunez jardun ginen. Joandako astelehenean, berriz, Urrietako solasaldia izan zen Xabier Leta zenari eta bizikidetza ikusi dugun hondatzeaz berak izan zuen iritziari buruz. Orain, Lasarte-Oriango egingo den astearteko ekitaldiarekin amaituko da zikloa," azaldu zuen Jexux Artetxek.

Bakerantza dokumentala

Era honetara, bihar, 'Bakerantza' dokumentala eskainiko da 18:30ean Manuel Lekuona kultur etxean. Elias Querejetaren ideia batean oinarritutako lana da eta 2011ko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen.

ETAko kide ohi, terrorismoaren biktimen eta senideen iritziak jasotzen ditu. "Iritzien arteko zenbait kontraste nabarmen agertzen dira," aipatu zuten, baita Maite Goizueta herritarra eta bere senarra Kepa Pikabea Nanclares bideko presoaren hitzak agertzen direla nabarmendu ere.

"Dokumentalak giza kalitatea erakusten du eta urte hauetan jazotakoak izan duen kostea," azpimarratu zuen Rekondok.

Dokumentalaren ostean, dokumentala eta elkarbizitzari buruzko solasaldia egingo da.

Jardunaldi positiboak

Elkarbizitza kideek, ekitaldi baten faltan, jardunaldi zikloaren irakurketa positiboa egin zuten, "harrera ona izan dute hiru herrietan. Plataforma eta elkarbizitza lantzeko jarraituko dituzten ildoak ezaugarri emateko aukera paregabea izan dira".

ELKARRETARATZEA

Fdez. Iradiren osasuna

Maiatzaren 7an epaia



Okendon ostiralean burutu zen elkarretaratzea presoaren egoera salatzeko.

TXINTXARRI

Ostiralean Ibon Fernandez Iradi presoaren egoera salatzeko elkarretaratzea egin zen. Esklerosi anizkoitza du eta kondena etetea eskatua du, gaixotasunak espetsuan okerrera egin dezakeela eta. Aurreko astean jakin zen epaileak maiatzaren 7ra atzeratu duela erabakia.

Epaileak askatzearen alde egin zuen 2014ko ekainean, bi baldintza ezarrita: Frantzian bizitzeko duen debekua balio gabetzea eta Pirinio Atlantikoetatik kanpo bizitzea. Urrian, beste mediku azterketa bat eskatu zuen.

Aurreko bi osasun azterketek zioten gaixotasun hau ez zela bateragarria espetsuarekin. Hirugarren azterketak,

berriz, baietz dio. Prokuradoreak azkenaren alde egin du eta Iradiren abokatuak salatu dute kontraesanak daudela.

Herriko EH Bilduk Fernandez Iradiren zigorra etetea eskatu du "gaixotasun larriek jotako presoaren osasun eskubiak ezin dira bermatu beren sorterritik ehunka kilometrora diren espetsuetan. Ibonek duen gaitza sendaezina izanik, tratamendua etxetik eta ospitaletik jarraitzea aholkatzen dute profesional guztiek, gaixotasuna era duinean artatzeko aukera bakarrak kartzelatik kanpo daude eta. Frantzia, Espainia eta nazioarteko legediek aukera hori garbiki aurreikusten dutenez, legearen baitako erabaki zentzuduna da Ibon baldintzapean kaleratzea" adierazi dute oharrean.

9. Ekozinemaldian frackinga landu dute

Petrolio-erazketa mota bat da frackinga. Haustura hidrauliko bezala itzuli liteke euskarara. Fracking-a, zentzu zabalean, presio hidraulikoaren bidez arroka apurtu, arrokan harrapatutako gasa edo petrolio askatu, lurrazalera bideratu eta merkaturatzeko asmoa duen teknikari ematen zaion izena da. Ekozinemaldiaren bidez, instituzioen eta petrolio-enpresen arteko "harreman ilunak" salatu nahi izan dituzte Ekologistak Martxan taldeko kideak. Azken urteotan garatu



Haustura hidraulikoak eragindako kalteak islatu zituzten hitzaldi aretoan.

da frackinga, batez ere, Estatu Batuetan. Orain, Euskal Herrian munduko beste leku

askotan bezala, "benetako mehatxua" dagoela ohartarazi dute.

Oporretako estresa




Ereintza Antzerki Taldeak 'Relaxing' lana taularatu zuen larunbatean Manuel Lekuonan. Amateur programazioaren baitako saioa izan zen eta Errenterikoek oporretan sortzen diren urduritasun

eta plan aldaketak modu umoretsuan izan zituzten hizpide. Oporrekin denbora luzez amestu ostean, iristean, amesgaizto bihurtzeko erakusti zuten pertsonaia eta istorio ezberdinek.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azumendi, Jon Altuna,
Nerea Eizagirre
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Maider Seguro, Jexux
Artetxe, Gorka Alvarez, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDAL HAUTESKUNDEAK

EHBilduren hautagaiak

Hauteskundeetarako zerrenda aurkezpena egin zuten



Txalo artean hartu zuten zinegotzigaiek Pablo Barrio zerrenda burua.

Pablo Barrio alkatea zerrenda buruan eta egun dauden EHBilduko zinegotzien artean, Gorka Lizarraga da errepikatzen bakarra. Trinketean egindako sagardotegi giroko aurkezpenean, bertaratutakoek zerrendaren aldeko edo kontrako bozka eman behar izan zuten eta %100eko onarpenarekin, aurrera atera zen. Xabier Olano, Aldundi-rako EHBilduren hautagaia izan zen aurkezpenean.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako EHBilduk datozen udal hauteskundeetarako alkate eta zinegotzigaiek aurkeztu zituen ostegunean Trinketean egindako ekitaldian. Festa giroan, parte-hartze prozesu bidez osatutako zerrenda aurkeztu eta bertaratu zirenek euren babes eman behar izan zioten honi bozka bidez.

Oraindik udalean lanean dauden alkate eta zinegotziak igo ziren oholtzara lehenengo eta oso modu positiboan baloratu zuten orain arte burututako lana. Taxio Arrizabalagak hitza hartu eta "urte hauetan asko ikasi dugu, momentu zailak egon dira baita on asko ere" aipatu zuen. Txalo zaparrada luzea jaso zuten eta jarraian,

bozken emaitzak jakitera eman zituzten. Hauen arabera, %100eko babesarekin onartu egin zen proposatzen zen zerrenda.

Horrela, Pablo Barrio buru, Leire Elizegi, Gorka Lizarraga, Kris Bernal, Jon Martin, Manu Elizalde, Inge Mendioroz, Ane Labaka, Aitor Azkonobieta, Ainhoa Negeruela, Kosti Bokos, Irati Perez, Tomas Arruti, Maite Salazar, Liher Unanue, Marian Bueno, Luis Kastresana, Enara Yeregi, Joxe Mari Agirretxe eta Esti Amantegi herritarrek osatzen dute maiatzeko udal hauteskundeetan EHBilduk aurkeztzen duen zerrenda.

Pablo Barriok esan zuen "jakin dugu minorian gobernatzen, akordioak lotzen. Aurrekoek jakin izan ez dutena. Jakin dugu egoera ekonomiko latz batean kudeatzen. Eta

jakin dugu modu zorrotz eta zintzo kudeatzen. Zorra murriztu dugu. Eta aurreko legistaturatik bueltatu beharreko Funts Forala bueltatu dugu, kriston dirutza. Hurrengo gobernuari ez diogu halako kargarik utziko. Eta Gizarte Zerbitzuetan herri honetan sekula ezagutu ez diren hobari eta hobekuntzak sartuta. Jakin dugu herritarrengandik hurbil egoten, herriaren parte izaten".

Hauteskundeetara begira, finkatutako erronkak hasitako bideari jarraipena ematea izango dela azpimarratu zuen egungo alkateak. "Modu parte-hartzailea, gardena, zuzena, herritarren premiak betetzera bideratua".

Ekitaldian Xabier Olano, EHBilduk Aldundian aurkeztu duen hautagaia, izan zen eta lasarteoriarrak animatu zituen EHBilduren gobernuari jarraipena emateko. "Iruditzen zait azken lau urte hauetan Lasarte-Oriako herritarrek bizi kalitatea irabazi dutela".

Bukatzeko, Joxe Mari Agirretxek dantzan jarri zituen eta familia argazkia egin zuten bertaratutako herritarrekin.

BIYAK BAT

Asturias eta Galiziara bidaia

Biyak Bat erretiratuen elkarteak maiatzaren 26tik ekainaren 5era Asturias eta Galiziara bidaia antolatu du. Honetan besteak beste, Ribadesella, Oviedo, Finisterre edo eguraldiak lagutzen badu, Covadongako lakuak eta Praia das Catedrais labarra bisitatuko dituzte.

Bazkideek 461 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 485 euro. Banakako gela hartzen dutenek 155 eurotako garestitzea izango dute prezioan.

Izena ematea elkarteko bulegoan egingo da martxoaren 30etik aurrera, goizetan 10:30etik 12:30era.

BATUKADA TOPAKETA

Banakako izen-ematea

Maiatzaren 16an Lasarte-Orian ospatuko den Euskal Herriko 3. Batukaden Topaketan helduentzako banakako izen-ematea zabalik dago bihar arte.

10:30etik 12:30era egingo diren tailerrak, bazkaria eta arratsaldeko saioan parte hartzeko aukera izango dute honetan izena ematen duten herritarrek.

Ikastaroak dantza afrikarra, Body percussion, Rezibatukada edo Txalaparta izango dira eta hauertako bat aukeratu behar da. Bazkarian paella, edaria eta postrea izango dira.

Izena ematea webgunean egin beharko izango da: www.batukadentopaketa.eus helbidean. Prezioa 15 eurotako da. Antolatzaileek ohartarazi nahi dute izena emateko beharrezkoa dela perkusioaren inguruan gutxienez oinarrizko ezagutzak izatea.

DANBORRADA

ATLO 'eskopetero' bila ari da

Lasarte-Oriako Danborradak aldaketa txiki bat egin nahi du datorren San Pedro Jaiei begira. Azken urteotan Eibarko "gastadoreek" egiten duten lana "eskopeteroek" betetzea da elkartearen asmoa. Horretarako, gutxi gora behera hamabi lagun beharko lituzkete: "Zure laguntza eske gatoz, familia, kuadrila, lagun, etab. en artean talde hori osatzeko jendearen partehartze bila ari gara".

Talde honen lana danborradaren aurretik bidea irekiz joan eta geldidunetan "salba" batzuk egitea da. Materialaren kargu ATLO egingo litzateke. Erantzuna martxoaren 31a baino lehen eman beharko da, tamborradalasarteoria@gmail.com e-mailaren bitartez. Aldaketa egingo da, edo ez da egingo, jasotako erantzunen arabera.

HAUTESKUNDEAK

PSE-EE bozka postaz ematen laguntzeko prest

Jesus Zaballos bozkatzeko asmoa dutenentzat, udal talde sozialista postaz bozka emateko pausoak zein diren argitzeko prest agertu da. "Maiatzaren 24an mugikortasun, gaioxotasun, adin edo dena delako arazoak tarteko, bozkatzera joan ezingo duten herritarrei lagundu nahi diegu".

Horretarako, PSE-EEko kideak posta bidezko bozken tramitean laguntzeko prest agertu dira martxoan 31 eta maiatzaren 14ra bitartean. Herritarrek egin behar dutena honakoa da, Ganbo kalean dagoen Casa del Pueblora hurbildu asteleheneetik igandera 8:00-15:00 eta 17:00-21:00 orduetartean. Bestela, informazioa telefonoz ere eskuratu dezakete 943 37 28 69 eta 943 37 71 38 telefonoetan.

IPAR MARTXA

Irteera bikaina

Lehenengo larunbatean, martxoaren 21ean, Ipar martxoaren taldeak lehen irteera egin zuen Lasarte-Orian.

Rosa Ormazabal eta Begoña Moriana hezitzaileekin batera 15 bat lagunek bi ordu-tan, Santuenearaino joan-etorria egin zuten. Bueltan, Zubietan zehazki luzaketak egitera geratu ziren.

Taldeko kideek aipatu dutenez, irteera hauek herritar guztiei irekiak dira. Hurrengo hitzordua apirilaren 25ean, goizeko 10:00etan izan arren, data aldaketa egon daitekeela ere jakinarazi digute.



Ione Zabalak irabazi du mural lehiaketa

Herriko neska gazte batek, Ione Zabalak irabazi du Lasarte-Oriako I. Mural Lehiaketa Juan XXIII. plazan egin duen lanarekin.

Pablo Barrio alkateak banatu zituen sariak ostira-lean udaletxeko pleno aretoan egin zen sari-banaketan. Irabazleak honakoak: 1. Ione Zabala 1.500 euro 2. Estibaliz Vera 1.250 euro 3. Miguel Angel Medina 1.000 euro 4. Alejandro Gonzalez 300 euro eta 5. Juan Carlos Arango 300 euro.

Alkateak guztien lana baloratu, eskertu eta "udaberriaren etorrerarekin" alderatu zituen lanak. "Helburu hirukoitza zuen lehiaketa



Lehenengo saria eskuratu duen muralaren ondoan atera zuten talde argazkia.

honek, herriari kolorea ematea, artistei euren lanak islatzeko leku bat eskaintzea eta herriko merkatua biziberritzen laguntzea", adierazi zuen Barriok.

Eskerrak eman zizkien eraberean Antxota herriko artisten

elkarteko kideei, prozesuan zehar emandako laguntzagatik. Ione Zabalak bere aldetik, sorpresaz jaso zuen albisteak: "Ez nuen espero, Arte Ederrak ikasten ari naiz EHU Leioako Campusean eta aurrera egiteko indarrak ematen dizkit".



UDAL IKASTAROETAN SARBIDEA EMAN EUSKARARI

Kulturan ere ikastaro batzuk euskaraz

Manuel Lekuona kultur etxean hainbat ikastaro eskaintzen ditu Euskara, Hezkuntza eta Kultura sailak. Euskara soilean egin ohi den tailerrik badago, Literatura tailerra, baina bestetan hizkuntza-praktika herritarren hizkuntza-ezaugarrietara egokitzeko metodologia jartzen da martxan. Era honetara, badira bi urte jostintza ikastaroan euskara darabilte.

Lasarte-Oriako Udalarako ezberdinetan eskaintzen dituen zerbitzu eta ikastaroetan euskararen erabilera sustatu eta handitzea du helburu. Horretarako erabiltzaileen hizkuntza ezaugarrietara egokitzeko metodologia jartzen da martxan Lasarte-Orian, zein Buruntzaldeko herrietan.



Sara Ferreira irakaslea, eskubitik hasita lehenengoa, jostintza klasean ikasle bati azalpenak ematen.

Honen arabera, hiru multzo berezitan dira:

- A taldea. Partaide guztiek edo ia guztiek ulertzen dute euskara. Ondorioz, ikastaroa euskaraz edo nagusiki euskaraz emango da.
- B taldea. Partaideen erdiak baino gehiagok ulertzen du euskara. Beraz, ikastaroa ia erabat euskaraz emango da. Euskaraz ulertzeko zailtasuna duenari azalpenak gaztelaniaz emango zaizkio.
- C taldea. Partaideen erdiak baino gutxiagok ulertzen du euskara. Gauzak horrela, ikastaroa nagusiki gaztelaniaz emango bada ere, euskarari sarbidea emango zaio agurrean, animozko hitzetan, etab.

Euskaraz
Metodologia honi jarraituz, jostintza eta konponketa

ikastaroetan nagusiki euskaraz egon dira lanean.

Sara Ferreira irakaslea azaldu digunez, "printzipioz klasearen arabera erabaki behar genuen zein hizkuntza erabili. Ikasle euskaldun edo erdaldunen kopuruaren arabera alde batera edo bestera jo. Gehien-geok euskaraz mintzatzen bazuen, euskaraz emango genuen, baina gehiengo erdalduna baldin bazen, gaztelerez egingo genuen eta ikasle euskaldunei euskaraz mintzatuko nintzaie."

Hala ere, ikasturte hone-

tan ikastaroa euskaraz eskaintzeko ikasleekin negoziaketa txikia egin zuela aipatu digu, "gehiengo erdalduna zela jakin arazi zidaten, baina azkenean bazekiten euskaraz. Ulertzen zuten, baina ez ziren asko hitz egiteko gai. Orduan klase guztiaren artean gauza dinamikokoak erdaraz egitea erabaki genuen, denok ondo ulertzeko. Baina bestela giroa euskalduna da".

Azpimarratu duenez, "jostintzako hitz teknikoak gaztelerez ulertzea errazagoa da.

Hiztegi aldetik ere nahiz eta ahalegindu, barrenak sartu esan beharrean, bajuak hartu esaten dugu".

Aurreko lana
Zailtasunik ez du aurkitu ikastaroa emateko garaian, baina lehenengo urtean hiztegia modu berezian landu behar izan zuela onartu du. "Bigarren urtea da ikastaro hau ematen dudala. Zailtasuna bere momentuan pasatzen nuen. Denbora hartu behar izan nuen hasieran prestatzeleraz, jostintzako hiztegia eus-

karatu bainuen. Finean, nik neuk erdaraz ikasi nituen hitz teknikoak. Esate baterako, contorno de cintura, gerri buelta edo aldaka buelta. Ordenagailu eta hiztegi aurrean denboratxo bat behar izan nuen, euskaraz gauzak nola esan zehazteko... Eta niri ere primeran etorri zitzaidan. Nahiz eta euskalduna izan, lan kontuetan erdaraz egin dut beti eta eronka txiki bat izan zen. Baina uste dut ondo egin diodala aurre".

Irakasleak elebidunak izatea onargarri ikusten du, "nire kasuan, beste klase batzuk erdaraz eskaintzen ditut, baina ikasleekin euskaraz mintzatzen naiz".

Horregatik, bai irakasleek bai ikasleek hizkuntza aukeraketa honetan zer esana izatearen alde agertzen da. "Euskaldun giroa izatea oso polita da, baina ulerkorra da jendeak jakin ez izatea eta ez da erraza horrelako klase bat guztia euskaraz ematea eta ondo ulertzea. Eta aukerak ematea beti ongi dagoela iruditzen zait".

Era berean, lasarteoriarrak ikastaroak euskaraz egitea animatuko lituzke, "giro polita sortzen da eta nire ustez primerakoa da euskaraz egin ahal izatea".

esaten saiatzen naiz eta ezin dudanean, gaztelerez esaten ditut naturaltasun osoz".

Euskalduntze prozesua
Honela Udalak ikastaroetan hizkuntza aukera eskaintzearen alde agertu dira biak.

"Euskal Herrian gaude eta Lasarte-Orian badakigu zein arazo dauden hizkuntzarekin, kanpotar asko dago eta horrelakoek herria euskalduntzen laguntzen dute," azpimarratu du Xabik.

Izaskunek, berriz, "jostun ikastaroa ez da asko hitz egitekoa baina badago besterik. Bi hizkuntzetara egitea hezibide onetara iruditzen zait gainera".

Era honetara, herritarrak animatzen dituzte Kultura ikastaroetan parte hartu eta haue- tan euskaraz egitera.



Izaskun eskubiko lehena eta Xabier ikaskideekin solasean.

Azalpenak ele bitan
Biek aipatu digutenez, "taldean adostu genuen euskaraz egingo genuela klasea eta erdaraz nahi zutenei hizkuntza horretan mintzatu zitzaiela".

"Nahiz eta azalpena euskaraz eman eta gero gaztelerez, marrazkiak ere egiten ditu irakasleak kontzeptuak

hobeto ulertu ahal izateko, patrioiak etab. Gauza berriak ikasten dituzu hiztegi espezi- fikoak esate baterako. Egunero hitz berriren bat dago. Gai- nera, hitz batzuk zailak dira euskaraz esan eta ulertzeko," adierazi du Izaskunek. Xabierrentzat berriz, "hiz- tegia berria da, gaztelerez ere ez dakit. Hala ere, euskaraz

Udalaren ikastaroekin bidea euskaraz egin



- ▶ Aldez aurretik ikastaroa euskaraz izango dela definitzen denean... Ikastaroa **EUSKARAZ EMANGO DA**.
- ▶ **%75-100**: partaide guztiek edo ia guztiek ulertzen badute euskara... Ikastaroa **EUSKARAZ EDO NAGUSIKI EUSKARAZ EMANGO DA**.
- ▶ **%50-75**: partaideen erdiek baino gehiagok ulertzen badute euskara... Ikastaroa **NAGUSIKI EUSKARAZ EDO BI HIZKUNTZETAN EMANGO DA**.
- ▶ **%<50**: partaideen erdiek baino gutxiagok ulertzen badute euskara... Ikastaroa **NAGUSIKI GAZTELANIAZ EDO BI HIZKUNTZETAN EMANGO DA**.

"Euskararen alde"

Izaskun Unanue eta Xabier Etxabe jostintza ikastaroan izan dira eta jostintza gain, euskara erabiltzeko aukera izan dute. Izaskunek bigarren ikastaroa du, Xabierrek lehenengoa eta giro ederra izan dutela aipatu digute.

Hizkuntza ezaugarriak kontutan izateari buruz, "niri berdin zitzaidan ongi iruditzen zait ikastaroa bi hizkuntzetan eskaintzea eta irakasleak bietan egitea. Ikas- kideek euskara ulertzen dute eta zerbait ulertzen ez dute- nean, besteoi galdetuz konpontzen dira" esan digu Izaskunek. "Ez da nire kasua nik ule-

tzen dut, hitz egiteko arazoak ditut, baina badago jendeak ulertu ere ez duena egiten," apaitu du Xabierrek. "Pertso- nalki onuragarria izan da esperientzia, josten ikasteaz gain, ikastaroak euskaraz hitz egiten trebatzeko aukera ere ematen dit. Horregatik nahiz eta hasieran, berdin zitzaidan ikastaroa euskaraz edo gazte- leraz eman. Euskaraz izatea hobeto izan da".

"Azken finean, taldearen hizkuntza ezaugarriak kontu- tan izatea ona da Euskara gure hizkuntza da eta oso garrantzitsua da hau erakun- deetatik ahal den neurrian behintzat, sustatzea".

KIROL PLANA.

Kirol eta jarduera fisikoaren plana aurkeztu dute

2015-2018 urteen bitartean egin beharreko lanak finkatu du Udaleko kirol sailak

Kirolaren eta jarduera fisikoaren egoera orokorra eza-gutzea, herriko kirol panoraman agente aktibo izan daitezkeen elkarte eta norbanako guztiak saretzea, herritarren behar eta proposamenen berri izatea eta azkenik, erabiltzaileak, kirolariak, prozesu guzti honen 'epizentro' gisa ulertuta, etorkizunera begirako kirolaren plan estrategiko bat osatzea dira Udalak aurkeztu berri duen planaren helburuak.

TXINTXARRI

Jolasteko eta jokatzeko proiektuaren bitartez, hurrengo urteetako kirolaren bidea "zuzentzea" izan da Udalaren xedea, eman beharreko pausoak, lehentasunak, garatu beharreko azpiegiturak... zein izan behar duten erabakitzeak.

Emandako urratsak

Prozesua iazko martxoan hasi zen, udal barruko lanarekin: informazio bilketa, prozesuaren diseinu orokorraren zirriborroa... Horrela, 2014ko maiatzean, lehen faseari ekin zitzaion, elkarrizketa konkretuekin. Guztira, 30 inguru egin ziren: kirol elkarteekin, kultur eta aisialdi elkarteekin, adineko elkarteekin, Udaleko sail ezberdinekin, etab. Elkarrizketa hauetan, hainbat gai izan ziren aztergai eta jasotako informazioarekin, egoeraren diagnostikoa osatu zen.

Udalak hasieratik ikusi zuen herritarren parte-hartzea ezinbestekoa zela, kirola eta jarduera fisiko praktikatzan dituztenen eta ez dituztenen iritzia ezagutzea alegia. Hori dela eta, hainbat dinamika jarri ziren martxan urria, azaroa eta abendua artean.

Parte-hartze dinamika hauetan, adinka banatuta, herriko kirolean zer aldatu eta zer hobetu daitezkeen landu zuten. Bertan jasotako proposamen guztiak aintzat harturik, plan estrategikoa osatu dute, Murua Aholkularitza enpresaren zerbitzuekin.

2015-2018 kirol plana

Prozesuan jasotako ekarpen ezberdinak sei multzotan sailkatu dira planaren baitan.

Antolaketa eta kudeaketari dagokionez, kirol zerbitzuaren lana egiteko moduen berrikuspen bat egitea planteatzen da Udala eta herriko elkarten arteko koordinazioa



Maitane Elduainen Murua enpresako kidea, Taxio Arrizabalaga kirol zinegotzia eta Karlos Altuna teknikaria. aurkezpenean.

hobetzeko. Horretarako, kirol koordinatzailearen figura eta ebaluazio sistema berria ezarriko dira, ordutegi eta abono politiken berrikuspena egitearekin batera.

Instalakuntzei dagokionez, erabilgarritasuna handitzea eta posible den kasuetan, hobetzea da asmoa. Instalazioak apurka berritzen joateko konpromisoak programa bat egitea ere bai, kiroldegi berriaren proiektuari begira.

Ingununearen alorrean bidegorri sarea osatzea eta argiztapena, iturriak, parkeak etab. zaintzea da helburua.

Jarduerari dagokionez, herritarren eta herriko eragi-

leen beharrak aseko dituen urte osoko eskaintza guztia bateratuko da.

Kirol sozialaren arloan, genero berdintasuna, euskaren sustapena, emakumezkoen kirolaren sustapena, eskola kirolean ez-kompetitibotasuna, adinduen ariketa fisikoaren sustapena... ezinbestekotzat ikusi dira.

Komunikazioaren alorrean, kirol gune informatiboa sortzea da asmoa, kirol zerbitzuek eskaintzen dituzten aukerak ezagutzera emateko eta bitarteko berriak sortzeko.

Udalak onartutako planaren xehetasun guztiak lasarte-oria.eus webgunean daude.

Epe laburrerako asmoa

"Bideari ekin besterik ez zaio egin ikerketarekin. Planean zehaztutako hainbat ekimen martxan jartzeko garaia da orain. Zehazki, instalazioei dagokion arloari helduko zaio lehenik, herritarren artean behar handienetariko baten gisara detektatu baita" adierazi du Arrizabalaga zinegotziak.

Beraz, jasotako ekarpen guztiekin instalazioen azterketa konkretu bat burutzeari ekin dio jada Udaleko kirol sailak. "Lasarte-Orian herritarren beharretara egokitutako kirol politika bat jarraitu nahi dugu, plan hau da bideari ekiteneko iparra", esan dute.

ESKIA.

Enara Fernandez garaile Andorrako Txapelketan, slalom erraldoian

Lehen aldiz antolatu dute Andorrako Txapelketa eta Enara Fernandez herriko eskiatzaile gazteak ez du hutsik egin. Urrea jantzi zuen joan den astean Grandvaliran, slalom erraldoian, Vanesa Servet gidariarekin batera.

Baldintza klimatikoak ez ziren batere onak izan txapelketak iraun bitartean. Elurra, hazeteak eta hotza izan dituzte Pirinioetan, eta horrek gauzak zaildu egin dizkie eskiatzaile guztiei.

Bi egunetan lehiatu zuten Enarak, eta txanponaren bi aldeak ikusi zituen asteburu berean. Larunbatean slalom erraldoiko txapela jantzi bazuen ere, igandean slalom modalitatean ate bat pasata, dominen lehiatik kanpo geratu zen.



Enara Fernandez dominarekin, Andorrako podiumaren gorenean.

Espainiako Txapelketa

Astelehen eta asteartean berriz, Espainiako Txapelketan lehiatu zuen Enara Fernandezek, Pas de la Casan. Aurreko egunetako baldintza gogorrek sukarra eragin zioten eskiatzaile lasarteoriari eta hala ere, lehiatzea erabaki zuen. Erabaki ona hartu zuen,

urre bana kolkoratu baitzuen slalomean eta slalom erraldoian.

Bestalde, Europako txapelketarako gogoz bazegoen ere, bertan behera geratu dela jakinarazi du familiak eta beraz, orain atsedean hartuko du uztailean entrenatzera Alpeetara joango den arte.

LABURRAK.

Luken Carbayeda bigarren Eibarren, Otxoaren Oroimenezkoan

Luken Carbayeda Bazpiko txirrindulari gazteak bigarren egin zuen kadete mailako Eibarko lasterketan. Hogeita bi laguneko tropeltxoan erabaki zen garaipena, esprinean. Carbayedaren aurretik Unai Iribar soilik sailkatu zen eta hirugarren Iñigo Zabalzak egin zuen. Haien atzetik, Bazpiko Asier Ibarbiak 25. egin zuen, 36. Oier Urbizu izan zen eta 38. Manex Altuna. Emaizta onekin hasi dute beraz herriko txirrindulariek errepideko denboraldia. Atzo arratsaldean Azpeitian lehiatu zuten kadeteek.



Zabalik dago Lasarte-Oriako V. BTT travesian izena-emateko epea

Apirilaren 19an izango da Atravesia, igandean, goizeko 9:30ean hasita. Bi distantzia labor izango dituzte mendi-txirrindulariek aukeran Andatzen barrena ibiltzeko, 30 eta 40 kilometrokoak. Izen-ematea Kirolprobak orrialdean egin behar da. Federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte, federatu gabekoek 17. Travesia eta gero, kirol materiala eta bi urdaiazpiko zozketatuko dira inskripzioa egin duten parte-hartzaile guztien artean.



— Agenda —

Osteguna-Larunbata, Lasarte-Oria



Aste Santua ospatzen

Lasarte-Oriako fededunek garai garrantzitsua ospatuko dute aste honetan, Aste Santua. Jesusen azken egunak gogora ekarriko dituzte San Pedro parrokian, Arantzazuko Ama eliza eta Brijitarren komentuan egingo diren elizkizun eta ekintza berezietan.

Osteguna, 17:30etan
BRIJITARREN KOMENTUA
Ordu Santua, ele bitan.

Osteguna, 19:00etan
ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Meza santua, euskaraz.

Osteguna, 19:00etan
SAN PEDRO PARROKIA
Meza santua, gazteleraz.

Osteguna, 17:30ean
BRIJITARREN KOMENTUA
Ordu Santua, ele bitan.

Ostirala, 09:00etan
SAN PEDRO PARROKIA
Gurutze Bidea

Ostirala, 10:00etan
ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Gurutze Bidea Azkorterera

Ostirala, 11:00etan
BRIJITARREN KOMENTUA
Gurutze Bidea

Ostirala, 16:30ean
BRIJITARREN KOMENTUA
Pasioa, ele bitan.

Ostirala, 18:00etan
SAN PEDRO PARROKIA
Pasioa, euskaraz.

Ostirala, 18:00etan
ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Pasioa, gazteleraz.

Larunbata, 19:00etan
BRIJITARREN KOMENTUA
Pazko gaubela, ele bitan.

Larunbata, 21:00etan
SAN PEDRO PARROKIA
Pazko gaubela, ele bitan.

Lasarte-Oria

Dokumentala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea, 18:30ean

"Bakerantza" dokumentala eskainiko da. Elkarbizi plataformak 'Elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen' antolatutako azken ekintza da. Ostean, solasaldia izango da.

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 10, 22:00etan

Azterriko film onenaren Urrezko Glo-

boa lortu zuen "Leviathan" filma Okendo zinema taldearen zine forum saioan. Jatorrizko bertsioa gaztelerazko azpitituluekin. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 11, 20:00etan

"Perdiendo el norte" umorezko filma ikusi ahal izango da helduentzako zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 12, 17:00etan

Ipuin klasikoak nahasten dituen "Into the woods" filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 12, 19:30ean

"Perdiendo el norte" umorezko filma ikusi ahal izango da helduentzako zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Martxoan zehar

Rudy margolariaren "Itzalaren koloreak" bilduma dago ikusgai.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Apirilean zehar

Haur eta gaztetxoek 2014 urteko

Udako Txoko eta Kanpaldiak gogora ekartzeko argazki erakusketa antolatuta da.

Usurbil

Antzerkia

SUTEGI

Larunbata 11, 19:30ean

Anabel Arraiza eta Inazio Tolosa aktoreek Alex Tello usurbildarrak zuzendutako "Zu gabe" antzezlan eskainiko dute. Sarrera 6 euro egunean bertan. Gattunk #Kilometroak15 antolutako ekintza.

— Herritarren txokoa —

Udako Txoko eta Kanpaldietan begiraleak behar dira

Uztaila edo abuztuan zehar Udako Txokoetan herriko gaztetxoekin primeran pasa edo Mendigorria eta Donemiliagan udaleku itxietan ibilaldiak egin eta milaka abentura bizitzeko prest dauden gazteek izena emateko aukera dute dagoeneko.

Begirale ugari behar dira batez ere Udako Txokoetarako. Aisia saileko arduradunek azpimarratu dutenez, bi baldintza daude 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukuna izatea.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Ttakun Kultur elkartera hurbildu edo aisia@ttakun.com helbidera mezu bat bidali besterik ez du. Begirale poltsan izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, gaur, martxoaren 30ean, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketa jar-

tzeko interesa izan dezakeen edozeinek kultura@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza edo informazio gehiagorako. Normalean hilabeteko iraupena duten erakusketak izanten dira Jalgin jartzen direnak. Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke. Ez da zertan Lasarte-Oriakoa izan behar espazio hau erabiltzeko.

Lasarte-Usurbil institutoko zozketa

Martin Berasategi jatetxean bazkaria irabazi duen zenbaki sariduna 1949 da. Hau daukanak Institutotik pasa behar duela jakitera eman du zentroak.

Eskutitza

MILA ESKER EUSKAHALDUN GUZTIEI !!

19. KORRIKA Urepelen hasi eta Bilbora bidean, Lasarte-Oriatik pasa da, nola ez!

Honek herrian hamaika kultur ekintza ekarri ditu berarekin eta hauek guztiak aurrera eramateko herritarren laguntza ezinbestekoa izan da.

Euskal Herri osoan da arrakastatsua KORRIKA, baina zinez, Lasarte-Orian bereziki da halakoa.

Mila esker ekitaldietan parte hartu edo antolatzen lagundu duzuenoi, korrika lagun zareten dendari eta tabernarioi, korrika laguntzaile egin zaretenoi, KORRIKA 19-ko zatia hartu duzuenoi, herria girotzen aritu zareten trikitilari, txistulari eta batukadari, barran lanean aritu zaretenoi, sukaldari, zerbitzatzen eta ontziak garbitzen lagundu duzuenoi, plaza dantza bideratu zenuenoi, mendi irteera antolatu duzuenoi, beroketa saioak bideratu zenituztenoi, triki-potea girotu duzuenoi, pintxo-potea egin duzuen tabernarioi, kantu-jirakooi, mus-txapelketako saria eman duzuenoi, familien arteko jokoak antolatu dituzuenoi, abeslarioi, mapak egiten lagundu diguzuenoi, kontzertuak antolatu ditu-

zuenoi, kazetarioi, argazkilarioi, kameralarioi, Lasarte-Oriako Udalarri,.....

Euskal Herri osoan da arrakastatsua KORRIKA, baina zinez, Lasarte-Orian bereziki da halakoa.

Honako hitz hauek zuei denoi eskerrak bihotzez emateko dira. Ez daukagu hitz nahikorik zuek guztioi eskerrak emateko orduan.

Lasarte-Oriak gero eta EUSKAHALDUN gehiago izan dezan, hemendik aurrera ere jarrai dezagun herria euskaldun egiten.

MILA ESKER !!!

Munteri AEK euskaltegia

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Testigantzei aitortza

Islada Ezkutatuak eurekin gerra garaiaz hitz egin duten herritarrei omenaldi egin die

Omenaldia egin zien atzo Udaletxeko pleno aretoan Islada Ezkutatuak taldeak 1936ko gerra garaian herrian eta eskualdean gertatu zena gogoratu eta kontatzeko prestutasuna izan duten herritarrei. Iaz egin zuten lehengoz aitortza ekitaldi hau eta kasu honetan, azken urtean taldeari euren testigantzak eman edota materiala utzi dizkietenei eskerrak eman nahi izan dizkiete atzokoan. Bertan parte hartu zuen Pablo Barrio alkateak eta Aldundiko Giza Eskubide eta Oroimen Historikorako zuzendaria den Marina Bidasoro.

TXINTXARRI

Udaletxeko pleno aretoa goraino bete zen atzo eguerdian Islada Ezkutatuak taldeak prestatutako ekitaldian.

Kristina Bernal taldeko kideak aurkezpenean esan zuenez: "1936ko Gerra eta bere ondorenak Lasarte-Orian eta inguruetan nola gertatu ziren ikertzeko jaio zen taldea. Biktimei merezi duten aitortza eskaini, erreparazioa eta berriro ez errepikatzea bilatzen dugu. Lan hau egiteko, herritarren laguntza behar dugu eta hain zuzen, zuek eskainitakoa eskertzeko bildu gara".

"1936ko gerraren ondoren gertatutakoa ezkutuan egon da. Orduko 85.000 hildako, oraindik soroetan eta bide bazterretan aurkitu gabe daude". Bernalek gogoratu zuen gerraren ondorengo urte luzeetan, 50. hamarkada arte, egoera ekonomikoa ez zela modu nabariaren hobetu eta ordura arte, miseria bizi izan zela jende asko.

Lekuko mutuak

Hain zen ikaragarria gertatutakoa eta gizartearen sartutako beldurra, "oraindik egun, 79 urte beranduago gure ikerke-

tak aurrera eramateko testigu mutuak aurkitzen ditugula. Zorionez asko dira euren bizipenak kontatu dizkiguten lasarteoriatarrek baita industrializazio garaian hona etorritako bizilagunak. Bai Lasarte-Orian baita euren jatorrizko herrietan gertatutakoa".

Herritarrei esker lan ildo berriak zabaldu dituztela ere adierazi zuen Islada Ezkutatuak taldeko ordezkariak, "hainbeste informazio bakkirik biltzea ezinezkoa izango zen gure taldearentzat, jakin badakigu ere, zenbait gertakari betiko galdu zirela". Memoria historikoa berreskuratzea, gizartearen garapen armoniatzurako ezinbestekoa eta identitate sortzaile dela azpimarratu zuen Bernalek "eta berreskuratzearen bataila, zuek ari zarete irabazten".

Etorbizuna eraikitzeko giltza

Jarraian, Pablo Barrio alkateak hartu zuen hitza omenaldi honetan eta lekuko garrantzia azpimarratu nahi izan zuen, "gertatutakoa ez ahazteko, transmisioa dugu tresna eta sendabelarra. Etorbizuna, bai pertsonala eta herriarena, egunero eraikitzen dugu baina garrantzia handia



Erakundeetako ordezkariekin argazkia egin zuten testigantza emandako herritarrek.

du nola egiten dugun etorkizun hori, modu axolagabearen edo modu eraikitzailean. Gu etorkizunaren protagonista izanda, gu gure etorkizunaren jabe izanda. Eta hau da gure herrirako nahi duguna".

Modu berezian eskerrak eman zizkien herritarrei euren testigantzak emateagatik baita Aldundiari, halako ikerketak egiteko laguntza eskaintzeagatik ere.

Islada Ezkutatuak taldeko kideentzat ere esker oneko hitzak izan zituen Lasarte-Oriako alkateak "egiten ari diren lan guztiagatik eskerrak beroenak".

Ikertzen jarraitzeko babes

Marina Bidasoro, Aldundiko Giza Eskubide eta Oroimen Historikorako zuzendaria izan zen atzoko ekitaldian ere eta honek esan zuen, egia jakitea eta biktimen sufritutakoaren aitortza, etorkizunaren benetako elkarbizitza lortzeko tresna bakarrak direla.

Horrela izanda, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eskerrak eman zizkien bertaratutako herritar guztiei eta berretsi zuen erakunde honek memoria historikoa ikertzeaz arduratzen diren Islada Ezkutatuak bezalako taldeekin duen konpromisoa, egitasmo hau laguntza eta babesa eskainiz.

Jose Agustin Muguruzak hainbat datu eman zituen 1936an Buruntzan jazotako gertakariez eta Joseba Tapia herriko musikariak "Tximela" bertsolariak garai hartan kartzelan idatzitako bertsoekin osatutako pare bat kanta jo zituen.

Ekitaldiari amaiera emateko, oroigarri banaketa egin zen. Kristalezko botila bat oparitu zieten 40 herritarrei barnean esker ona adierazten zuen grabatuarekin.

Oroigarria eman bitartean, hainbat argazki proiektatu zituen taldeak, hain zuzen, herritar hauek utzitakoak.

Horrela izanda, oraindik argazki askotan azaltzen diren pertsonak identifikatzeko dituela esan zuen Kristina Bernalek eta inork hauek ezagutzekotan, Islada Ezkutatuak taldeko kideekin harremanetan jartzeko eskatu zien bertaratutakoak.

Horrekin batera, testigantzak jasotzen jarraitzeko prestutasuna azaldu zuten taldeko kideek eta herritarrek animatu nahi izan zituzten euren bizilagunen adibidea jarraituta hau egitera.

Bukatzeko, guztiek familia argazkia egin zuten erakundeetako ordezkariekin eta iaz oroigarria jasotako herritarrekin batera.

Iazkoan bezala, momentu hunkigarriak bizi ahal izan zituzten bertaratutakoek igandeko ekitaldian.

Aspaldi ikusi gabeko bizilagunekin hitz egiteko parada izan zuten batzuek eta guztiek, iragan hartako gertaerak gogora ekarri ahal izan zituzten.



Jendetza hurbildu zen pleno aretoan ospatutako omenaldira.

TTAKUNEK GIZARTE ETA KULTUR DINAMIZATZAILEA BEHAR DU

Egitekoa:

-Gizarte eta kultur egitasmoak antolatu eta gauzatzea

Ezinbestekoa izango da:

- Euskara menperatzea
- Erdi edo goi mailako ikasketak izatea

Baloratuko da:

- Euskaletza eta herrigintza esperientzia izatea
- Egitasmoak antolatu eta gauzatzeko gaitasuna izatea
- Giza harremanetarako eta taldean lan egiteko gaitasuna izatea

Bidali zure curriculum, apirilaren 18a baino lehen, ttakun@ttakun.com edo Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, helbideetara

